

Bagaude... eta egongo gara.

Euskal Herria bi zikloen artean harrapatuta dago, amaitzean egon daitekeen ziklo autonomista eta jaiotzean izan daitekeen marko demokratikoaren arteko zikloetan. Gaur egun bizi dugun blokeoa, bihar gauzatu daitekeen aldaketa. Ez da erraza izango baina azken 30 urteetako lanak eta borrokak aldaketarako aukera bat eskaintzen digute; eta bereziki Lizarra-Garazitik gaur arte egindako bidean ikusi ditzakegu zikloa aldatzeko baldintzak daudela.



Arabako D3M hautagai zerrendaren aurkezpena, espetxeratua izan den Amparo Las Heras da zerrenda burua

Hori da Ezker Abertzalearen lehenengo helburua eta erronka nagusia, Euskal Herriarentzako ziklo aldaketa errealitate egitea. Eta horretarako, aldaketa benetakoa izan dadin, ziklo berri bat irekitzea posible izan dadin, egoera politikoa desblokeatu behar dugu.

Nola? Aldaketa demokratikoaren alde egon daitezkeen sektore abertzaleak artikulatuz. Ezker Abertzaleak sektore horiek bildu nahi ditu, herri honentzako tresna eraginkorra izan dadin dinamizatu, prozesu horren lidergoaren ardura hartzeko prest gaude. Apaltasun osoz, harrokeri izpirik gabe, baina argi esan behar dugu: Ezker Abertzaleak egiten ez badu, ez du inork egingo.

Ez da erraza izango, PSOEek eta PNVk ezer ez aldatzea dutelako helburu, benetako aldaketa batek kolokan jartzen baititu beraien interesak. Horregatik lurperatu nahi dituzte Lizarra-Garazitik hona sortutako aldaketarako baldintzak, egungo gatazka eta blokeoa luzatuz botereari eutsi nahian. Batzuk argiago esaten dute Estatutu erreforma soil bat bilatzen dutela, besteek ezin dute argi hitz egin, horregatik deitzen diote Kontzertu Politikoa. Baina finean gauza bera da, eta hori lortzearen Ezker Abertzalea txikitu nahi dute, desagerrarazi. Horregatik atxiloketak, legez kanporatzeak, instituzioetatik kanpo uzteko nahia,... Azken jauzi errepresiboa, hauteskundeetan parte hartzea delitu bilakatu duen operazioa, horren adibide argia da.

Itxurazko demokraziaren azken izpia ere bertan behera utzi dute Ezker Abertzalea bidetik atera nahian. Baina Ezker Abertzalearen posizio politikoa eta helburuak ez dituzte mugiaraziko. Konpromiso irmo bat dugu herriarekin. Herri hau eskenatoki demokratiko batetara eramango dugu, prozesu demokratiko bat bururaino eramango dugu. Polizia operazioak hauteskundeetan Ezker Abertzalearen zerrendarik ez egotea bilatzen zuen, baina Ezker Abertzalearen zerrendak egon badaude. Legez kanporatzearekin hauteskundeetan ez egotea bilatuko dute, baina hauteskundeetan egon egongo gara.

Eta honen aurrean badira ezer gertatuko ez balitz bezala hitz hutsak eta promesa faltsuen artean kanpaina egiten jarraitzen duten hautagaiak, ezer gertatuko ez balitz bezala. Baina errealitatea gordinetia da ikusezin bilakatzeko, ezker abertzalearen ideiak debekatuak eta hautagaiak espetxeratuak direnean ez dago esaterik demokrazia badagoela. Ez dira hauteskunde demokratikoak izango, ez. Eta horretan dago gakoa, Demokrazia behar dugu, inoiz baino gehiago. Hori dago jokoan, horretan dago hautua. Eta Ezker Abertzalearena argia da, aldaketaren aldekoa, konponbidearen aldekoa; lau hitzetan, prozesu demokratiko baten aldeko hautua. Horretan gaude,... eta egongo gara.